



OSASUN SAILA

Osasun Sailburuordetza

Plangintza, Antolamendu eta Ebaluazio
Sanitarioko Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE SALUD

Viceconsejería de Salud

Dirección de Planificación, Ordenación y
Evaluación Sanitarias**EBAZPENA, 2019ko otsailaren 8a, Plangintza, Antolamendu eta Ebaluazio Sanitarioko zuzendariarena, zeinaren bidez Euskal Autonomia Erkidegoan dauden irakaskuntza-batzordeak onartzen baitira.**

Euskal Autonomia Erkidegoaren osasun-prestakuntza espezializatuko sistemaren antolamenduari buruzko martxoaren 6ko 34/2012 Dekretuak, (2012ko martxoaren 14ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria, 53. zenbakia), Euskal Autonomia Erkidegoaren esparruan osasun-prestakuntza espezializatuaren sistemaren antolamendua arautzea du helburu, kontuan hartuta, betiere, otsailaren 8ko 183/2008 Errege Dekretua, osasun-zientzietako espezialitateak zehaztu eta sailkatzekoa eta osasun-prestakuntza espezializatuko alderdi jakin batzuk garatzekoa.

Arau hori indarrean jarri zenetik, Euskal Autonomia Erkidegoan irakaskuntza-batzorde propioa duten 16 zentro edo unitate daude, irakaskuntza honako zentroen bidez gauzatzen dutenak:

– zentro horietatik, 7 ospitaleak dira:

Basurtuko Unibertsitate Ospitalea

Gurutzetako Unibertsitate Ospitalea

Donostia Unibertsitate Ospitalea

Galdakao-Usansolo Ospitalea

San Eloy Ospitalea

Arabako Unibertsitate Ospitalea

Onkologikoa

– 2 irakaskuntza-unitatek autonomia-erkidego osoan funtzionatzen dute:

Laneko Medikuntzako irakaskuntza-unitatea

Euskal Autonomia Erkidegoko Medikuntza Prebentibo eta Osasun Publikoko Irakaskuntza Unitatea

– 4 irakaskuntza-unitate multiprofesional:

Arabako Familia eta Komunitate Arretako Irakaskuntzako Unitate Multiprofesionala

Bizkaiko Familia eta Komunitate Arretako Irakaskuntzako Unitate Multiprofesionala

Gipuzkoako Familia eta Komunitate Arretako Irakaskuntzako Unitate Multiprofesionala

Bizkaiko Osasun Mentaleko Sarearen Osasun Mentaleko Irakaskuntzako Unitate Multiprofesionala



Nahi izanez gero, J0D0Z-T1G74-VEPQ bilagailua erabilita, dokumentu hau egiazkoa den ala ez jakin liteke egoitza elektronikoa honetan: <http://euskadi.eus/lokalizatzailea>

Donostia - San Sebastian, 1 - 01010 VITORIA-GASTEIZ
La autenticidad de este documento puede ser contrastada en la sede electrónica del Gobierno Vasco. E-mail: docencia-san@euskadi.eus
J0D0Z-T1G74-VEPQ en la sede electrónica <http://euskadi.eus/localizador>

– 2 irakaskuntza-unitate erizaintzakoak dira:

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren Osasun Mentaleko erizaintza arloko Irakaskuntza Unitatea

Obstetrizia eta Ginekologiako erizaintzako Irakaskuntza Unitatea Euskal Osasun Zerbitzua

– Geriatriako irakaskuntza-unitate multiprofesional bat arlo pribatuan:

Matia Fundazioaren geriatriako Irakaskuntza Unitate Multiprofesionala.

Kontuan hartuta 2008ko otsailaren 8ko 183/2008 Errege Dekretuaren 8. artikulua, Irakaskuntza Batzordeak kide anitzeko organoak dira, eta haiei dagokie prestakuntza antolatzea, prestakuntza praktikan nola aplikatzen den ikuskatzea eta Osasun Zientzietako espezialitateen prestakuntza-programetan aurreikusitako helburuak betetzen direla kontrolatzea. Errege Dekretu horren bidez, osasun-zientzietako espezialitateak zehaztu eta sailkatzen dira eta osasun-prestakuntza espezializatuko alderdi jakin batzuk garatzen. Era berean, haiei dagokie egoiliarren prestakuntza-jarduerak osasun-zentroaren osasun-sorospeneko eta ohiko jardueretan barneratzen laguntzea, eta, horretarako, egoiliarrek zentroan beteko duten jardura profesionala planifikatuko dute zuzendaritza-organoeekin batera.

Euskal Autonomia Erkidegoaren osasun-prestakuntza espezializatuko sistemaren antolamenduari buruzko martxoaren 6ko 34/2012 Dekretuak Euskal Autonomia Erkidegoaren esparruan osasun-prestakuntza espezializatuaren sistemaren antolamendua arautzea du helburu, kontuan hartuta, betiere, otsailaren 8ko 183/2008 Errege Dekretuak ezarritakoa. Haren 6.3 artikuluan ezarritakoaren arabera, Euskal Autonomia Erkidegoko irakaskuntza-batzordeak osasun-prestakuntza espezializatuan eskumena duen zuzendaritzaren ebazpenez sortu, aldatu eta desegingo dira, eta hark zehaztuko du, halaber, zer irakaskuntza-unitate dauden batzorde bakoitzari atxikita. Dekretuaren lehen xedapen iragankorraren arabera, osasun-prestakuntza espezializatuaren jakintza eta ebaluazioa kudeatzeko eskumena duen zuzendaritzak ebazpena emango du, orain arteko irakaskuntza-batzordeak onartzeko, aurreratzean era daitezkeen batzordeak eratzeo prozesuaren kalterik gabe.

Apirilaren 11ko 80/2017 Dekretuak (apirilaren 21eko EHAA, 76. zenbakia) Osasun Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen du, eta horren helburua da Plangintza, Antolamendu eta Ebaluazio Sanitarioko Zuzendaritzak EAEn osasun-arloko irakaskuntza eta prestakuntza zuzentzea, planifikatzea, koordinatzea eta kudeatzea.

Horiek horrela, hau

EBAZTEN DUT:

Lehena.- Ebazpen honetako eranskinean zerrendatu diren irakaskuntza-batzordeak onartzea. Horretan, gainera, horien mendekotasun funtzionala eta atxikitako irakaskuntza-unitateak zehaztu dira. Hori guztia, Euskal Autonomia Erkidegoaren osasun-prestakuntza espezializatuko sistemaren antolamenduari buruzko martxoaren 6ko 34/2012 Dekretuaren lehenengo xedapen iragankorrean ezarritakoa betez.

Bigarrena.- Onartutako irakaskuntza-batzordeen kopurua, osaera eta funtzioak Euskal Autonomia Erkidegoaren osasun-prestakuntza espezializatuko sistemaren


antolamenduari buruzko martxoaren 6ko 34/2012 Dekretuaren xehetasunen arabera izan beharko dira.

Hirugarrena.- Ezartzea onartutako irakaskuntza-batzordeen eta sortuko diren berrien osaera eguneratua, zentroaren edo irakaskuntza-unitatearen plan estrategikoa eta irakaskuntza-kalitatearen kudeaketa-plana –martxoaren 6ko 34/2012 Dekretuaren 7.2 artikuluan zehaztua– Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren webgunean argitaratu beharko direla, zentroari edo irakaskuntza-unitateari dagokion atalean.

Laugarrena.- Ebazpen hau Osasun sailaren eta Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuaren egoitza elektronikoan, argitaratzeko agintzea, prozedura honetan interesduna izan litezkeen guztien ezagupenarako.

Bosgarrena.- Ebazpenak ez dio amaiera ematen administrazio-bideari, eta, beraren aurka, interesdunek gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango diote Osasuneko sailburuordeari, hilabeteko epean, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, betiere Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 121. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoari jarraituz.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko otsailaren 8a.



Miren Nekane Murga Eizaga
Plangintza, Antolamendu eta Ebaluazio Sanitarioko zuzendaria
OSASUN SAILA
DEPARTAMENTO DE SALUD

Eranskina, Euskal Autonomia Erkidegoan dauden irakaskuntza-batzordeak onartzen dituen Plangintza, Antolamendu eta Ebaluazio Sanitarioko zuzendariaren Ebazpenarena.

Arabako Unibertsitate Ospitaleko Irakaskuntza Batzordea. Araba Erakunde Sanitario Integratuko zuzendaritza-gerentziaren mende dago funtzionalki.	
Irakaskuntza-unitateak (IU)	Espezialitatea
Alergologiako IU	Alergologia
Anestesiologiako eta Bizkortzeko IU	Anestesiologia eta Bizkortzea
Digestio-aparatuko IU	Digestio-aparatua
Kardiologiako IU	Kardiologia
Endokrinologiako IU	Endokrinologia
Hematologiako IU	Hematologia
Medikuntza Intentsiboko IU	Medikuntza Intentsiboa
Barne-medikuntzako IU	Barne-medikuntza
Pneumologiako IU	Pneumologia
Neurofisiologia Klinikoko IU	Neurofisiologia Klinikoa
Onkologia Medikoko IU	Onkologia medikoa
Kirurgia Orokorreko eta Digestio-aparatuko Kirurgiako IU	Kirurgia orokorra eta digestio-aparatuko kirurgia
Kirurgia ortopediko eta traumatologiako IU	Kirurgia ortopedikoa eta traumatologia
Urologiako IU	Urologia
Erradiodiagnostikoko IU	Erradiodiagnostikoa
Psikiatriako eta Psikologia klinikoko IU	Psikiatria
	Psikologia klinikoa
Analisi Klinikoetako IU	Analisi klinikoak.
Anatomia Patologikoko IU	Anatomia patologikoa
Dermatologiako IU	Dermatologia
Ospitaleko Farmaziako IU	Ospitaleko farmazia
Obstetrizia eta Ginekologiako IU	Obstetrizia eta ginekologia
Oftalmologiako IU	Oftalmologia
Pediatriako IU	Pediatria

Donostia Unibertsitate Ospitaleko Irakaskuntza Batzordea Donostialdea Erakunde Sanitario Integratuko zuzendaritza-gerentziaren mende dago funtzionalki.	
Irakaskuntza-unitateak (IU)	Espezialitatea
Anestesiologiako eta Bizkortzeko IU	Anestesiologia eta Bizkortzea
Digestio-aparatuko IU	Digestio-aparatua
Kardiologiako IU	Kardiologia
Endokrinologiako IU	Endokrinologia
Hematologiako IU	Hematologia
Medikuntza Fisikoko eta Errehabilitazioko IU	Medikuntza Fisikoa eta Errehabilitazioa
Medikuntza Intentsiboko IU	Medikuntza Intentsiboa
Barne-medikuntzako IU	Barne-medikuntza
Nefrologiako IU	Nefrologia
Pneumologiako IU	Pneumologia
Neurologiako IU	Neurologia



Donostia Unibertsitate Ospitaleko Irakaskuntza Batzordea
Donostialdea Erakunde Sanitario Integratuko zuzendaritza-gerentziaren mende dago funtzionalki.

Irakaskuntza-unitateak (IU)	Espezialitatea
Onkologia Medikoko IU	Onkologia Medikoa
Onkologia Erradioterapikoko IU	Onkologia Erradioterapikoa
Erreumatologiako IU	Erreumatologia
Angiologiako eta Kirurgia Baskularreko IU	Angiologia eta Kirurgia Baskularra
Kirurgia Orokorreko eta Digestio-aparatuko Kirurgiako IU	Kirurgia Orokorra eta Digestio-aparatuko Kirurgia
Kirurgia Ortopedikoko eta Traumatologiako IU	Kirurgia Ortopedikoa eta Traumatologia
Kirurgia Pediatrikoko IU	Kirurgia Pediatrikoa
Kirurgia Plastikoa, Estetikoa eta Konpontzailea	Kirurgia Plastikoa, Estetikoa eta Konpontzailea
Toraxeko Kirurgiako IU	Toraxeko Kirurgia
Neurokirurgiako IU	Neurokirurgia
Urologiako IU	Urologia
Erradiodiagnostikoko IU	Erradiodiagnostikoa
Psikiatriako eta Psikologia klinikoko IU	Psikiatria
	Psikologia Klinikoa
Analisi Klinikoetako IU	Analisi Klinikoak
Biokimika Klinikoko IU	Biokimika Klinikoa
Immunologiako IU	Immunologia
Mikrobiologiako IU	Mikrobiologia
Anatomia Patologikoko IU	Anatomia Patologikoa
Dermatologiako IU	Dermatologia
Ospitaleko Farmaziako IU	Ospitaleko Farmazia
Obstetrizia eta Ginekologiako IU	Obstetrizia eta Ginekologia
Oftalmologiako IU	Oftalmologia
Otorrinolaringologiako IU	Otorrinolaringologia
Pediatriako IU	Pediatria

Gurutzetako Unibertsitate Ospitaleko Irakaskuntza Batzordea
Ezkerraldea-Enkarterri-Cruces Erakunde Sanitario Integratuko zuzendaritza-gerentziaren mende dago funtzionalki.

Irakaskuntza-unitateak (IU)	Espezialitatea
Alergologiako IU	Alergologia
Anestesiologiako eta Bizkortzeko IU	Anestesiologia eta Bizkortzea
Digestio-aparatuko IU	Digestio-aparatua
Kardiologiako IU	Kardiologia
Endokrinologiako IU	Endokrinologia
Hematologiako IU	Hematologia
Medikuntza Fisikoko eta Errehabilitazioko IU	Medikuntza Fisikoa eta Errehabilitazioa
Medikuntza Intentsiboko IU	Medikuntza Intentsiboa
Barne-medikuntzako IU	Barne-medikuntza
Nefrologiako IU	Nefrologia
Pneumologiako IU	Pneumologia
Neurofisiologia Klinikoko IU	Neurofisiologia Klinikoa

Gurutzetako Unibertsitate Ospitaleko Irakaskuntza Batzordea Ezkerraldea-Enkarterri-Cruces Erakunde Sanitario Integratuko zuzendaritza-gerentziaren mende dago funtzionalki.	
Irakaskuntza-unitateak (IU)	Espezialitateak
Neurologiako IU	Neurologia
Onkologia Medikoko IU	Onkologia Medikoa
Onkologia Erradioterapikoko IU	Onkologia Erradioterapikoa
Erreumatologiako IU	Erreumatologia
Angiologiako eta Kirurgia Baskularreko IU	Angiologia eta Kirurgia Baskularra
Kirurgia kardiobaskularreko IU	Kirurgia kardiobaskularra
Kirurgia Orokorreko eta Digestio-aparatuko Kirurgiako IU	Kirurgia Orokorra eta Digestio-aparatuko Kirurgia
Aurpegi-masailezurretako Kirurgiako IU	Aurpegi-masailezurretako Kirurgia
Kirurgia Ortopedikoko eta Traumatologiako IU	Kirurgia Ortopedikoa eta Traumatologia
Kirurgia Pediatrikoko IU	Kirurgia Pediatrikoa
Kirurgia Plastikoa, Estetikoa eta Konpontzailea	Kirurgia Plastikoa, Estetikoa eta Konpontzailea
Toraxeko Kirurgiako IU	Toraxeko Kirurgia
Neurokirurgiako IU	Neurokirurgia
Urologiako IU	Urologia
Medikuntza Nuklearreko IU	Medikuntza Nuklearra
Erradiodiagnostikoko IU	Erradiodiagnostikoa
Psikiatriako IU	Psikiatria
Analisi Klinikoetako IU	Analisi Klinikoak
Mikrobiologiako IU	Mikrobiologia
Anatomia Patologikoko IU	Anatomia Patologikoa
Dermatologiako IU	Dermatologia
Pediatriako IU Multiprofesionala	Pediatria
	Erizaintza Pediatrikoa
Ospitaleko Farmaziako IU	Ospitaleko Farmazia
Obstetrizia eta Ginekologiako IU	Obstetrizia eta Ginekologia
Oftalmologiako IU	Oftalmologia
Otorrinolaringologiako IU	Otorrinolaringologia

Basurtuko Unibertsitate Ospitaleko Irakaskuntza Batzordea Bilbao-Basurto Erakunde Sanitario Integratuko zuzendaritza-gerentziaren mende dago funtzionalki.	
Irakaskuntza-unitateak (IU)	Espezialitateak:
Alergologiako IU	Alergologia
Anestesiologiako eta Bizkortzeko IU	Anestesiologia eta Bizkortzea
Digestio-aparatuko IU	Digestio-aparatua
Kardiologiako IU	Kardiologia
Endokrinologiako IU	Endokrinologia
Hematologiako IU	Hematologia
Medikuntza Fisikoko eta Errehabilitazioko IU	Medikuntza Fisikoa eta Errehabilitazioa
Barne-medikuntzako IU	Barne-medikuntza
Nefrologiako IU	Nefrologia
Pneumologiako IU	Pneumologia



Basurtuko Unibertsitate Ospitaleko Irakaskuntza Batzordea
Bilbao-Basurto Erakunde Sanitario Integratuko zuzendaritza-gerentziaren mende dago funtzionalki.

Irakaskuntza-unitateak (IU)	Espezialitateak:
Neurologiako IU	Neurologia
Onkologia Medikoko IU	Onkologia Medikoa
Onkologia Erradioterapikoko IU	Onkologia Erradioterapikoa
Erreumatologiako IU	Erreumatologia
Kirurgia Orokorreko eta Digestio-aparatuko Kirurgiako IU	Kirurgia Orokorra eta Digestio-aparatuko Kirurgia
Kirurgia Ortopedikoko eta Traumatologiako IU	Kirurgia Ortopedikoa eta Traumatologia
Neurokirurgiako IU	Neurokirurgia
Urologiako IU	Urologia
Erradiodiagnostikoko IU	Erradiodiagnostikoa
Psikiatriako eta Psikologia klinikoko IU	Psikiatria
	Psikologia Klinikoa
Analisi Klinikoetako IU	Analisi Klinikoak
Biokimika Klinikoko IU	Biokimika Klinikoa
Mikrobiologiako IU	Mikrobiologia
Anatomia Patologikoko IU	Anatomia Patologikoa
Dermatologiako IU	Dermatologia
Ospitaleko Farmaziako IU	Ospitaleko Farmazia
Obstetrizia eta Ginekologiako IU	Obstetrizia eta Ginekologia
Oftalmologiako IU	Oftalmologia
Otorrinolaringologiako IU	Otorrinolaringologia
Pediatriako IU	Pediatria

Galdakao-Usansolo Ospitaleko Irakaskuntza Batzordea
Barrualde-Galdakao Erakunde Sanitario Integratuko zuzendaritza-gerentziaren mende dago funtzionalki.

Irakaskuntza-unitateak (IU)	Espezialitatea
Anestesiologiako eta Bizkortzeko IU	Anestesiologia eta Bizkortzea
Digestio-aparatuko IU	Digestio-aparatua
Kardiologiako IU	Kardiologia
Medikuntza Intentsiboko IU	Medikuntza Intentsiboa
Barne-medikuntzako IU	Barne-medikuntza
Nefrologiako IU	Nefrologia
Pneumologiako IU	Pneumologia
Neurologiako IU	Neurologia
Angiologiako eta Kirurgia Baskularreko IU	Angiologia eta Kirurgia Baskularra
Kirurgia Orokorreko eta Digestio-aparatuko Kirurgiako IU	Kirurgia Orokorra eta Digestio-aparatuko Kirurgia
Kirurgia Ortopedikoko eta Traumatologiako IU	Kirurgia Ortopedikoa eta Traumatologia
Urologiako IU	Urologia
Erradiodiagnostikoko IU	Erradiodiagnostikoa
Psikiatriako eta Psikologia klinikoko IU	Psikiatria
	Psikologia Klinikoa

Galdakao-Usansolo Ospitaleko Irakaskuntza Batzordea
Barrualde-Galdakao Erakunde Sanitario Integratuko zuzendaritza-gerentziaren
mende dago funtzionalki.

Irakaskuntza-unitateak (IU)	Espezialitatea
Analisi Klinikoetako IU	Analisi Klinikoak
Ospitaleko Farmaziako IU	Ospitaleko Farmazia
Oftalmologiako IU	Oftalmologia
Otorrinolaringologiako IU	Otorrinolaringologia

Bizkaiko Osasun Mentaleko Sareko Irakaskuntza Batzordea
Bizkaiko Osasun Mentaleko Sareko zuzendaritza-gerentziaren
mende dago funtzionalki.

Irakaskuntza Unitatea	Espezialitatea
Osasun Mentaleko IU Multiprofesionala	Psikiatria
	Psikologia Klinikoa
	Osasun Mentaleko Erizaintza

San Eloy Ospitaleko Irakaskuntza Batzordea
Barakaldo-Sestao Erakunde Sanitario Integratuko zuzendaritza-gerentziaren
mende dago funtzionalki.

Irakaskuntza Unitatea	Espezialitatea
Oftalmologiako IU	Oftalmologia

Arabako Familia eta Komunitate Arretako Irakaskuntza Unitate
Multiprofesionaleko Irakaskuntza Batzordea
Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko Osasun Laguntza Zuzendaritzaren
mende dago funtzionalki.

Irakaskuntza Unitatea	Espezialitatea
Arabako Familia eta Komunitate Arretako IUM	Familia eta Komunitateko Medikuntza
	Familia eta Komunitateko Erizaintza

Bizkaiko Familia eta Komunitate Arretako Irakaskuntza Unitate
Multiprofesionaleko Irakaskuntza Batzordea
Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko Osasun Laguntza Zuzendaritzaren
mende dago funtzionalki.

Irakaskuntza Unitatea	Espezialitatea
Familia eta Komunitateko Arretako IUM	Familia eta Komunitateko Medikuntza
	Familia eta Komunitateko Erizaintza



Gipuzkoako Familia eta Komunitate Arretako Irakaskuntza Unitate Multiprofesionaleko Irakaskuntza Batzordea Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko Osasun Laguntza Zuzendaritzaren mende dago funtzionalki.	
Irakaskuntza Unitatea	Espezialitatea
Gipuzkoako Familia eta Komunitateko Arretako IUM	Familia eta Komunitateko Medikuntza Familia eta Komunitateko Erizaintza

Euskadiko Laneko Medikuntzako Irakaskuntza Unitateko Irakaskuntza Batzordea Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko Giza Baliabideetako Zuzendaritzaren mende dago funtzionalki.	
Irakaskuntza Unitatea	Espezialitatea
Laneko Medikuntzako IU	Laneko Medikuntza

Euskadiko Medikuntza Prebentibo eta Osasun Publikoko Irakaskuntza Unitateko Irakaskuntza Batzordea Osasun Sailaren Plangintza, Antolamendu eta Ebaluazio Sanitarioko Zuzendaritzaren mende dago funtzionalki.	
Irakaskuntza Unitatea	Espezialitatea
Medikuntza Prebentiboko eta Osasun Publikoko IU	Medikuntza Prebentiboa eta Osasun Publikoa

Obstetrizia eta Ginekologiako Erizaintzako Irakaskuntza Unitateko Irakaskuntza Batzordea Euskal Osasun Zerbitzua Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko Osasun Laguntza Zuzendaritzaren mende dago funtzionalki.	
Irakaskuntza Unitatea	Espezialitatea
Erizaintza Obstetrikoko Ginekologikoko IU	Erizaintza Obstetrikoko Ginekologikoa

Osakidetza Euskal Osasun Zerbitzuaren Osasun Mentaleko Erizaintzako Irakaskuntza Unitateko Irakaskuntza Batzordea Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko Osasun Laguntza Zuzendaritzaren mende dago funtzionalki.	
Irakaskuntza Unitatea	Espezialitatea
Euskadiko Osasun Mentaleko Erizaintzako IU	Osasun Mentaleko Erizaintza

Matia Fundazioaren Geriatriako Irakaskuntza Unitate Multiprofesionaleko Batzordea Matia Fundazioaren mende dago funtzionalki.	
Irakaskuntza Unitatea	Espezialitatea
Geriatriako IU Multiprofesionala	Geriatriako Erizaintza



Onkologikoa Fundazioko Irakaskuntza Batzordea Onkologikoaren mende dago funtzionalki.	
Irakaskuntza Unitatea	Espezialitatea
Onkologia Medikoko IU	Onkologia Medikoa
Onkologia Erradioterapikoko IU	Onkologia Erradioterapikoa
Medikuntza Nuklearreko IU	Medikuntza Nuklearra

